



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/02/10

Aldundiak arduratuta begiratzen dau Sorian planteau dan esne makro-esplotazioa, "egonkortuta" dagon Bizkaiko sektorean izan daiketan eraginengaitik

Bizkaiko Batzar Nagusietako Talde Mistoak, Elena Unzueta Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako diputatu andrearen agerraldia eskatu eban, Bizkaiko esnearen sektorearen gaur egungo egoeraren balorazioa egiteko. Aldundiko arduradunak zenbaki nagusiak aurkeztu ditu batzarretako taldeen aurrean. Bere esanetan, 2016. urtea, "150" esne ustiatetik" eta "50 milioi esne kilo baino gehiago" emon ebezan "10.500" behigaz itxi zan Bizkaian. Zenbaki horreek emon ostean, batzordeko taldeen artean eta Aldundian bertan "ardurea" sortu da, Sorian, "20.000" behi izango dituan esne ustiatetik bat martxan jarteko proiektua ezagutu ostean. Aldundiko arduradunak jakinarazo dauenez, Foru Gobernua "interesatuta" eta "arduratuta" dago, ustiatetik handi horrek gure lurraldean daborduko "egonkortzea" lortu dauen sektore batean izango dauen eragina dala eta.

Unzuetak, gure lurraldean garai "kritikoa" bizi izan dauen sektorea deskribidu dau, hainbat alderdiren eragina jaso dauelako: esne eta esneki kontsumoaren jatsiera "garrantzitsua", Erkidegoko merkaduaren desregularizazioa, kuoten desagerpena eta ekoizpenaren soberakinak, eta, adierazo dauenez, horrez gain kapital frantsesaren esku dagon eta "leku bakotxeko ekoizpenaren alde egiten dauen Bizkaiaaren apustutik oso urrun dagozan" interesak dituan Estatu mailako banaketan oinarritzen dan ereduaren kalteak jasaten ditu. Agertoki horretan, Bizkaiko kooperatiba taldeek, Euskadiko erakundearen laguntzeagaz, "egoerari aurre egiten" jakin dabe, euren beharra "eraldaketan eta bertako marken balio erantsian" oinarrituz.

Aldundiko arduradunak azpimarratu dauenez, gaur egun, Bizkaian ekoizten dan "ia esne guztia" bertako eragileetara "ailegetan da", ekoizleen interesetarako "arrazoizkoa" dan prezioan, "tona metriko bakotxeko 355 eurotik" gora, hori izango litzatekelako ustiatetik baten gitxieneko errentagarritasunaren mailea. Gainera, Unzuetaren berbetan, azkenengo urtean Lurraldeko ustiatetik, prezio "egonkorak, aurreko urteetakoak baino hobek" izan dituan lehengaiak euki ditue.

Nafarroako kooperatiba baten ekimena dan Soriako esne proiektuaren gerizpean, Unzuetak hainbat mezu zabaldu gura izan ditu. Beste ezer baino lehen, Aldundiak sektoreari "diruz" laguntzeko daukan "konpromisoa" adierazo dau. Eta, bigarrenez, herritarrak kontzientziaz gura izan ditu, Bizkaiko esnea kontsumidu daien, ingurumena hobetzen be laguntzen dauelako, "aztarna ekologikoa murrizten dauelako", landa ingurunea eta Bizkaia osoa hobetzen dauelako, eta abeltzaintzako ustiapenek "bizirik irautea" posible egiten dauelako. Lurraldeko kontsumitzaileak animau ditu "ez deioen bakarrik prezioari begiratu", Bizkaiko esnea eta esnekien kalidadea "goi mailakoa" dalako.

Batzarretako taldeek be euren "ardurea" agertu dabe, hemendik "200 kilometrorra egongo dan ustiatetik bakarrean" "Euskadi osoan beste behi egongo diralako". Proiektu horrek sektorearen "oreka ahula arriskuan jarri daike", esan dau Arturo Aldecoa Talde Mistoko bozeroaleak, eta hemendik aurrera prezioen arteko norgehiagoka "izugarria" ikusiko dogula aurreratu dau. Bere



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

berbetan, Aldundiak “esfortzu handia” egin behar dau esnearen eta esnekien kontsumoa sustetako Bizkaiko herritarren artean, Euskadik “14. lekua” beteten dauelako Autonomia Erkidegoen artean. Ildo berean, PPko Eduardo Andrések, “sektorea babesteko ez ohiko” neurriren bat aplikau beharra adierazo dau.

Podemos Bizkaia eta EH Bildu taldeentzat, barriz, “arazoa” aukeratutako eredia da, “kantidadean oinarritzen dalako, eta ez kalidadean”. Talde moreko Josean Elgezabalek, helburua produktua hobetzea izan behar dala esan dau, “abere gitxiago, ingurumen arloko arazo gitxiago eta enplegu gehiago izango dituan toki mailako kontsumoaren” aldeko apustua eginez. “Ez badogu eredia aldatzen, mahai gainean dagozan ondorioak ikusiko doguz”, esan dau.

EH Bilduko Mikel Kormenzanak, bere aldetik, sektoreak gaur egun bizi dauen egoerearen aurrean Aldundiak emon dauen erantzun “positiboa” “errespetu faltea” iruditzen jakola esan dau, esne ustiategiek “oso arazo larriak” daukiezalako, Administrazioetatik ezarri diran politikengaitik “batez be”, horreen ondorioz lurraldeko ustiategiak eraldaketa arloko enpresa handien eta merkataritza azalera handien “esklabo” bihurtu diralako. Bere berbetan, azken urte bietan 10 ustiategi desagertu dira (160tik 150era pasauz) eta 5 milioi kilo esne gitxiago ekoiztu da (55etik 50era). 2016ko amaieran erregistrauta egozan 150 ustiategietatik, “%35ak” errelebuagaz erlazioautako arazoak ditu, eta beste “%35 batek” “maileguak ordaintzeko arazoak” ditu. Azkenengo hamarkadetan ustiategien “%97,5” desagertu da. “Urtenbidea” produkzioa ekoizpen “ekologikora” bideratzea da, beste herrialde batzuetan “arrakastaz” egin dan moduan.

EAJ-PNVko María Presak EH Bilduri gogorarazo deusanez, Aldundiak “moeta guztietako ereduak” bultzatzen ditu, sektorea dalako bere ustiapenak norantz bideratu “aukeratzen dauena”. Etorkizunari jagokonez, eta Soriako ustiategia aitatuz, jeltzaleak “ardurea” erakutsi dau, “baina bere neurrian”, Batzarretako talde batzuek marrazten daben “eszenatoki apokaliptiko horretatik” urrunduz. Pozik agertu da Bizkaian sektorea “egonkortu” egin dalako, administrazioen eta kooperatiben arteko alkarlanari esker. Hori erakusten dauen seinalea da Bizkaiko “ia ekoizpen osoa” bertako zirkuluetan saltzen dala, penintsulako beste leku batzuetakoak baino prezio “altuagoakaz”.

Bukatzeko, EH Bilduren diskurtsoa “demagogikoa” dala esan dau Unzuetak, eta ezeztu egin dau datuen balorazino positiboa egin dauenik. Gainera, zehaztu dauenez, abeltzaina da ze ustiapen eredu gauzatu erabagiten dauena. Aldundiak “eredu guztiei” laguntzen deutse, moeta guztietako laguntzen, aholkularitzaren eta programa berezien bitartez. Zehaztuz, azkenengo hamarkadan, Foru Aldundiak “13 milioi euro” inbertidu ditu sektorean, eta horreei, ekimen pribaduak jarritako beste “15 milioi” gehitu behar jakez. Denpora gitxi barru onartuko dan esne eraldaketarako eskakizunen malgutasunerako arau teknikoaren garrantzia be azpimarratu dau, sektorearen egoerea hobetzeko oso lagungarria izango dala adierazoz.

ARRAIN HIRUARANTZA ETA SAGUZARRAK

Batzordeko eguneko gai zerrendan beste agerraldi eskari bi be jasoten ziran, Mundakako Errekatxuko kobako habitataren barri emoteko, eta lurraldeko erreka ingurueta arrain hiruarantzaren inguruko informazioa emoteko. Galindo ibaian ur gezatan ibiltan dan arrain hori “berreskuratu” egin dala adierazo dau, eta Granada errekatxoan eta Galindoren bi adarretan be arrain horren presentzia hautemon dala.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Podemos Bizkaia taldeak esan dauenez, Errekatxuko koban “bost” saguzar espezie dagoz. Horri jagokonez, diputatu andreak “ingurumen arloko ezelango arazorik ez dala hautemon” esan dau, teknikariek ez dabelako kobazulo horretan “babestutako ezelango espezierik” dagonik egiaztatu. Leku horretatik “gertu” Mundakako Udalak 24 etxebizitza eregiteko proiektua dauka.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
10/02/2017

La Diputación mira con "preocupación" la macroexplotación láctea de Soria por su impacto en un sector vizcaíno "estabilizado"

El grupo Mixto de las Juntas Generales había pedido la presencia de la diputada de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta, para que realizara una valoración de la situación actual del sector lácteo en Bizkaia. La responsable foral ha presentado a los grupos junteros los principales números. Bizkaia cerró el año 2016 con "150" explotaciones lácteas, y "10.500" cabezas de ganado que produjeron "más de 50 millones de kilos de leche". Ofrecidas estas cifras, en la comisión ha cuajado entre los grupos y la propia Diputación "preocupación" tras conocerse el proyecto para la puesta en marcha de una explotación lechera en Soria con "20.000 vacas". La responsable foral ha expresado el "interés" y la "preocupación" del Gobierno foral por cómo puede llegar a afectar esta explotación en un sector que ha logrado "estabilizarse" en el territorio.

Unzueta ha descrito un sector que ha vivido una época "crítica" en el territorio al verse afectado por varios factores: un "importante" descenso del consumo lácteo y sus derivados, la desregulación del mercado comunitario, y la desaparición de las cuotas y los excedentes productivos, agraviado, según ella, por un modelo que pivota sobre una distribución en el Estado que está en manos de capital francés, con unos intereses "muy distintos a la producción local por los que apuesta Bizkaia". En este escenario, los grupos cooperativistas vizcaínos, con la ayuda de las instituciones vascas, han logrado "capear el temporal" basando su trabajo "en la transformación y en el valor añadido de las marcas locales".

La responsable foral ha subrayado que, en la actualidad, "casi toda" la leche producida en Bizkaia "está colocada" entre agentes locales bajo un precio "razonable" para los intereses de los productores, por encima de los "355 euros/tonelada métrica" que sería el umbral de rentabilidad mínimo para una explotación. Además, según Unzueta, en el último año las explotaciones del Territorio se habrían beneficiado de una materia prima con precios "estables y mejores" a los de años atrás.

Con la sombra del proyecto lácteo de Soria, iniciativa de una cooperativa navarra, Unzueta ha aprovechado para repetir algunos mensajes. En primer lugar, ha expresado el "compromiso" de la Diputación por seguir apoyando "económicamente" al sector. Y, en segundo lugar, ha querido concienciar a la ciudadanía para que consuma leche vizcaína, ya que contribuye a mejorar el medio ambiente "al reducir la huella ecológica", mejora el medio rural y Bizkaia, y permite la "pervivencia" de las explotaciones ganaderas. Ha animado al consumidor del territorio "a no fijarse sólo en el precio" ya que los productos lácteos vizcaínos son "de primera calidad".

Los grupos junteros han mostrado también su "preocupación" ante las noticias de que "en una sola explotación a 200 kilómetros" de distancia, tengan "tantas vacas como en todo el País Vasco". Este proyecto puede "comprometer el frágil equilibrio" del sector ha dicho el representante del grupo Mixto, Arturo Aldecoa, quien pronostica una "terrible" competencia de precios. Cree que la Diputación debe hacer un "gran esfuerzo" en fomentar el consumo de leche



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

y sus derivados entre la población vizcaína, ya que el País Vasco ocupa el puesto “14” entre las Comunidades Autónomas. En la misma línea, Eduardo Andrés, del PP, ha abogado por la necesidad de aplicar alguna medida “excepcional para proteger al sector”.

Por su parte, para Podemos Bizkaia y EH Bildu, el “problema” es el modelo elegido, basado “en la cantidad y no en la calidad”. Josean Elgezabal, de la formación morada, ha pedido que se ponga el acento en mejorar el producto, apostando por un “consumo local con menos ganado, menos problemas ambientales y más empleo”. “O cambiamos el modelo o veremos las consecuencias que están encima de la mesa”, ha dicho.

Por su parte, Mikel Kormenzana, de EH Bildu, ha señalado que la respuesta “positiva” de la Diputación hacia la situación actual del sector le parece una “falta de respeto”, ya que las explotaciones lácteas tienen “gravísimos” problemas, “sobretudo” por la políticas implementadas desde las Administraciones que han empujado a las explotaciones del territorio a ser “esclavas” de las grandes transformadoras y superficies comerciales. Según él, en los dos últimos años han desaparecido 10 explotaciones (pasando de 160 a 150) y se han producido 5 millones menos de kilos de leche (de 55 a 50). De las 150 explotaciones registradas a finales de 2016, el “35%” tiene problemas de relevo y otro “35%” tiene “problemas para pagar los créditos”. En las últimas décadas, ha desaparecido el “97,5%” de las explotaciones. A su juicio, la “solución” pasa por orientar la producción hacia la producción “ecológica” como se ha hecho “con éxito” en otros países.

María Presa, del PNV, ha recordado a EH Bildu que la Diputación apoya “todo tipo de modelos”, ya que es el sector el que “elige” hacia donde orientar su explotación. Respecto al futuro, en referencia a la planta productiva de Soria, la jeltzale ha mostrado “preocupación, pero en su justa medida”, queriéndose alejar de “ese escenario apocalíptico” que dibujan algunos grupos junteros. Se ha alegrado de que en Bizkaia se haya llegado a “estabilizar” el sector gracias al trabajo conjunto entre administraciones y cooperativas. Buena señal de ello es que “casi la totalidad” de la producción vizcaína se vende en circuitos locales y con precios “por encima” de otras zonas de la península.

Por último, Unzueta ha tachado de “demagógico” el discurso de EH Bildu, ya que ha negado que haya hecho una valoración positiva de los datos. Además, ha precisado que la elección sobre el modelo de explotación recae en el ganadero. La Diputación apoya “todos los modelos” a través de ayudas, asesoramiento y programas específicos. En concreto, en la última década, la Institución foral habría invertido en el sector “13 millones de euros”, que se suman a otros “15 millones” aportados por la iniciativa privada. Ha subrayado también la próxima aprobación de la norma técnica de flexibilización de los requisitos para la transformación láctea, la cual contribuirá a mejorar la situación del sector.

PEZ ESPINOSO Y MURCIÉLAGOS

En el orden del día de la comisión, se incluían también otras dos peticiones de comparecencia en torno al hábitat de la cueva Errekatzu de Mundaka, y de la presencia del pez espinoso en las cuencas fluviales del territorio. Unzueta ha informado de la “recuperación” del pez de agua dulce en el río Galindo y la “presencia de poblaciones” en los arroyos Granada, y en dos afluentes del Galindo.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

En cuanto a la supuesta presencia de especies de murciélagos protegidos en la cueva de Errekatxu, planteada por Podemos Bizkaia, la diputada ha asegurado que “no se ha observado ningún problema medioambiental” puesto que los técnicos no han constatado la presencia de “ninguna especie protegida” en la cavidad, donde “cerca” el ayuntamiento de Mundaka ha proyectado la construcción de 24 viviendas.